2022ko abenduaren 5eko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Kattalin Duhalde, Sabine Etcheverry, Maité Oxarango, Anne Marie Darguy, Virginie Sabaloue, Samuel Biscay, Patrick Barneche, Fredéric Hernandez, Philippe Mongabure, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Karine Perez, Chantal Echevertz, Arño Gastambide,

Bilkurara ezin etorria jakinarazia: Koxe Barbier

1. Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia

INBESTIMENDUA			
Gastuak		**Irabaziak**	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
2138 (21) - 181 : Beste eraikuntzak	6 000,00	021 (021) : Funtzionamendu sailaren diru-transferentzia	13 000,00
21568 (21) - 179 : Suteetarako eta babes zibilerako beste material eta tresnak	-3 800,00	10222 (10) : BEZaren ordainsari funtsa	2 700,00
2183 (21) - 141 : Bulego eta informatika materiala	2 300,00	10226 (10) : Antolamendu zerga	7 050,00
2313 (23) - 172 : Eraikitzeak	1 500,00		
2313 (23) - 172 : Eraikitzeak	19 000,00		
2313 (23) - 180 : Eraikitzeak	8 000,00		
2315 (23) - 143 : Instalazio, material eta tresna teknikoak	-10 250,00		
	22 750,00		**22 750,00**
FUNTZIONAMENDUA			
Gastuak		**Irabaziak**	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
023 (023) : Transferentzia inbertsio sailera	13 000,00	7482 (74) : Leku aldatze eskubideen zerga gehigarrien galtzearen kalte ordaina, lur-funtsen publizitate zergak	13 000,00
615231 (011) : Bide obrak.	-5 000,00		
6411 (012) : Langile tituludunak	2 000,00		
65548 (65) : Beste ekarpenak	3 000,00		
	13 000,00		**13 000,00**
Gastuak orotara	**35 750,00**	**Irabaziak orotara**	**35 750,00**

Erregulartze-idazpen zenbait egin behar dira gastuei eta irabaziei begira 2022ko kontualdia bururatu gabe.
Herriko Kontseiluak onartu du.

- **Ordena operazioak (inbentario erregulazioa)**

INBESTIMENDUA

Gastuak		**Irabaziak**	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
2117 (041) : Oihanak	58 872,90	2152 (041) : Errepideetako instalazioak	12 895,97
21318 (041) : Beste eraikin publikoak	15 279,10	21534 (041) : Elektrifikazio sareak	4 345,67
2151 (041) : Bide sareak	2 284,80	21538 (041) : Beste sareak	302 661,00
21531 (041) : Ur ekartze sareak	1 627,03	2158 (041) : Instalazio, material eta tresna teknikoak	15 518,08

21533 (041) : Kable bidezko sareak	19 560,64	21721 (041) : Zuhaitz eta zuhaixken landatzea	2 606,68
21534 (041) : Elektrifikazio sareak	293 732,04	21728 (041) : Lursailen beste antolaketak eta antolamenduak	56 266,22
21568 (041) : Suteetarako eta babes zibilerako beste material eta tresnak	753,31	2183 (041) : Bulego eta informatika materiala	1 786,35
21571 (041) : Errotadun materiala	39 772,61	2188 (041) : Beste immobilizazio gorpuzdunak	39 772,61
2183 (041) : Bulego eta informatika materiala	5 023,20	2284 (041) : Altzariak	2 813,29
2184 (041) : Altzariak	2 813,29	2315 (041) : Instalazio, material eta tresna teknikoak	4 784,22
2188 (041) : Beste immobilizazio gorpuzdunak	3 731,17		
Gastuak orotara	**443 450,09**	**Irabaziak orotara**	**443 450,09**

Inbentario-idazpenak zerrendatu dira eta sailkatu herriko diruzainaren aginduen arabera.
Herriko Kontseiluak onartu du.

2. “Argi publikoen obra berriak” eskumena Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari eskualdatzearen karietara, argi instalazioen esku uztea.

Herriak Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldearen (lehengo SDEPA, Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua) esku utzi du herriko argien obragintzari buruzko hautuzko eskumena.
Indarrean ziren kontu-moldeetarako argi publikoen instalazioak herriko aktiboetan ezartzen ziren.
Baina sindikatuak BEZaren ordainsari funtsa zuzenki biltzen zuen, eta horrela faktura zezakeen herrien obretako parte hartzea, BEZaren ordainsari funtsaren zenbatekoa kendurik.
Sindikatuak ez dezake gehiago BEZaren ordainsari funtsa bil 2021eko kontualditik goiti egin argi publiko obretarako.
Herriek ere ezin dute BEZaren ordainsari funtsa bildu, obretako hondar parte hartzea hautagarri ez den kontu batean sartzen baita.
Beraz, sindikatua eta kide dituen herriak ez daitezen galtzaile izan BEZaren ordainsari funtsari begira, sindikatuak eta Finantza Publikoen Departamendu Zuzendaritzak elkarrekin eraman gogoeta baten ondotik, hau erabaki da: komeni da “argi publikoen obra berriak” eskumena sindikatuari eskualdatu dioten herriek herriko argi instalazioen esku uztea.
Onartu da esku uzte hori 2023ko urtarrilaren 1etik goiti egin operazioei aplikatuko zaiela eta ez jadanik dauden instalazioei, herrien aktiboetan gelditzen baitira.
Herriak dira herriko argi instalazioen jabe gelditzen.
Instalazio berriak Sindikatuaren aktiboan ezarriko dira.
Kontuei doakienez, esku uzte horren bidez sindikatuak herriko argietako obren gastuak 2317 kontuan ezar ditzake, eta BEZaren ordainsari funtsa berreskuratu. Herriaren hondar parte hartzea kalkulatzen ahalko da BEZaren ordainsari funtsa kendu eta, erreforma aitzin egiten zen bezala.
Jaun auzapezak edukia esplikatu ondoan, Herriko Kontseiluak antolaketa berria onartu du.

3. Herriko langileendako opari-bonuak

Herriko Kontseiluak onartu du Euskal Herria bihotzean opari-txekeak eskaintzea herriko langile guziei, 150 € pertsonako.

Gainerako gaiak:

Pilota ligaren mendeburuaren afixak: Euskal Herriko Pilota Batzordearen mendeburuaren karietara, afixa handiak ezarriko dira herriko euskarrietan. Herriko Kontseiluak parte hartuko du afixen finantzaketan eta edukian, Abarratia pilota klubarekin harremanetan.

Denen etxea Jendarteko Sokorriari prestatzea: Herriko Kontseiluak onartu du gela kitorik uztea karitatezko elkarteak besta bat antola dezan 2023ko otsailaren 25ean, larunbatarekin.

3. adinekoen arratsaldeko askaria: urtarrilean eginen da; 80 urtez goitikoentzat izanen da.

Okindegia berriz idekiko da: Hazparneko Bidart okindegiak Aiherrakoa berriz idekiko du 2023ko urtarrilean.

Lur-erretzeak: laborariei oroitarazten zaie deklarazioa **nahitaez** aurkeztu behar dutela 2022ko abenduaren 31 gabe.

Harosteguy lursaila lehentasunez erosteko eskubidea: prozedura huts baten ondorioz, epaileak baliogabetu du herriaren lehentasunez erosteko eskubidea. Itxura guzien arabera kontrakoen alderdiak indar guziak ezarri ditu bere xedeak obratzeko. Jakinarazpen ofizialen beha gaude.

Téléthoneko ontzia Herriko Etxean da oraino aste honetan.

Cecilia Etchart medikua Kurkotea etxean plantatzen da, Bastidako bidean. Berri ona Aiherra eta aihertarrentzat!

Abenduaren 21ean, 10:30ean, aihertar guziak gomit izanen dira 2023ko agiantzetara baita ere Herriko Etxe berriaren estreinara.

Bilkura 21:30ean bururatu da

Arño Gastambide, auzapeza